Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua | AGENDA 2030

Programaren finantziazio osoa

Instituto Navarro de la Juventud | Nafarroako Gazteriaren Institutua

Coordinadora de ONGD Navarra
Nafarroako GGKEen Koordinakundea

ODIO.FAKE NEWS-EN HITZALDIEN PILULAK

educacionjuventud@congdnavarra.org -en informazio gehiago

© Estudio Omapora, 2024 - 2026

Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

PRESTAKUNTZA-PILULAK
GORROTO-DISKURTSO
eta FAKE NEWSen aurrean

Instituto Navarro de la Juventud | Nafarroako Gazteriaren Institutua

Coordinadora de ONGD Navarra
Nafarroako GGKEen Koordinakundea

1 *Hau da AA? Desinformazioa, algoritmoak eta horren ondorioak.*

Deskribapena:
Nola eragiten duten desinformazioak, algoritmoek eta adimen artifizialak (AA) gure ikuskeran, gure pentsaeran eta sentieran. Ikasiko dugu buloak atzematen, irudiak eta bideo biralak aztertzen eta sare sozialen bilakaera ulertzen, eta zergatik hedatzen diren eduki jakin batzuk besteak baino gehiago eta, era berean, horrek zer ondorio dituen gure bizitzan eta gizartean: polarizazioa, konfiantza galera, gorroto diskurtsoak eta desanimu kolektiboa. Benetako adibideak erabiliz, prestakuntzak pentsamendu kritikoa sendotzea du xede eta gaitasuna izan dezagula informazio hobea jasotzeko, ingurune digitala gero eta konplexuagoa den honetan.

Entitate arduraduna:
Aloa Comunicación.

Nori zuzendua:
14 urtetik aurrera.

Tailerraren iraupena:
2 ordu.

Tailerraren helburuak:
Informazioz mukuru beteriko mundu honetan, etengabeko erronka da bereiztea zer den egia albisteetan, argitalpenetan eta komunikabideetan. Albiste faltsuak eta gorroto-diskurtsoa kezka bihurtu dira mundu osoan, komunikabideekiko mesfidantza sortzen baitute, eta jendea banantzen duten narratibak hedatzen. Ikastaro honen helburua da erronka horri aurre egiteko beharrezkoak diren tresna batzuk eskuratzea.

Gaztelaniaz.



2 *Gorroto-diskurtsoak. Egiturazko kausak eta herritartasun globala. Txokolate-tableta.*

Deskribapena:
Desberdinkeriaz hausnartzeko jarduera bat proposatuko dugu eta, horretarako, bidezko merkataritzako txokolate-tableta bat banatuko dugu parte-hartzaileen artean.
Ezagutuko dugu nola dauden banatuak baliabideak munduan eta zein diren desberdinkeriaren eta pobreziaren azpiko kausak.
Aztertuko dugu zer eragin duen egoera horrek munduko jende aunitzen giza eskubideen urraketan. Testuinguru horretan, bada joera bat pertsona txirotuak beren egoeraren erantzule egiteko, egoera hori norberaren erabakien ondorio izanen balitz bezala eta ez egiturazko arazoen ondorio.
Gorrotoa desberdinkerian hasten da.

Entitate arduraduna:
Medicus Mundi.

Nori zuzendua:
14 urtetik aurrera.

Tailerraren iraupena:
2 ordu.

Tailerraren helburuak:
Gorroto-diskurtsoen eta diskurtso negazionista edo ukatzaileen aurrean, ezinbestekoa da esparru berriak sortzea halako mezuak deseraiki eta geldiarazteko, kaltegarriak baitira berdintasunezkoa izan nahi duen eta giza eskubideak inolako diskriminaziorik gabe bermatu nahi dituen gizarte ororendako. Jendea gorrotoaren diskurtsoei aurre egitera adoretzeko, funtsezkoa da ezagutzea zein diren desberdinkerien azpian dauden egiturazko kausak eta jabetzea zeinen konplexua den errealitatea. Gorroto diskurtsoen aurrean txapa aldarrikatzaileak egiteko tailer batekin amaitzen da jarduna.

Gazteleraz.

© Estudio Omapora, 2024 - 2026

3 Eskubideen ikuspegirako sarrera.

Deskribapena:

Mezuz inguratuta bizi gara, batzuek mundu asko sartzen diren mundu bat eraikitzeko inspirazioa ematen dute, eta beste batzuek diskriminazioa sortzen dute. Tailer honetan gorroto-diskurtsoak detektatzen eta desmuntatzen ikasiko dugu, diskurtso horiek nola eraikitzen diren eta mundua ikusteko gure moduan nola eragiten duten ulertuz. Horretarako, giza eskubideen ikuspegia izatearen garrantziaz hitz egingo dugu.

Giza Eskubideen historiatik abiatuta, haiek defendatzen dituzten pertsonen benetako istorioak ezagutuko ditugu, eta borroka horiekin nola bat egin dezakegun ikusiko dugu. Errespetua, enpatia eta berdintasuna sustatzen dituen edukia sortuko dugu, gure irrati eramangarriarekin podcastak sortuz, reels edo bideo laburrak, memeak edo mezu zuzenak.

Entitate arduraduna:

Asociación Navarra Nuevo Futuro.

Nori zuzendua:

14 urtetik aurrera.

Tailerraren iraupena:

2 ordu.

Tailerraren helburuak:

- Sareetan eta gure ingurunean dauden gorroto-diskurtsoak detektatzea eta zalantzan jartzea.
- Giza Eskubideak erabiltzea mezu positiboak eta eraldatzaileak sortzeko gida gisa.
- Inpaktudun eduki digitalak diseinatzea, errespetua, aniztasuna eta bizikidetza sustatzeko.

Gaztelaniaz eta euskaraz.

4 Migrazioaren ekosistema.

Deskribapena:

"Migrazioaren" aldagaia, alde egiten duten pertsonen bizipena, geratzen direnena eta jasotzen dituztenena zabaldu eta hausnartuko dugu. Pertsona guztiok batera eraikiko ditugu migrazio-bizipenak, maila indibidualean, familiarrean eta kolektiboan. Breakout-Edu metodologiaren bidez (ihes-jokoa), "migrazio-doluaren" prozesuak igarotzen dituzten pertsonak bezala pentsatuko ditugu, "hemengoak" eta "hangoak" diren pertsonak. Pertsona gisa batzen gaituena bilatzean jarriko dugu arreta, komunitate bereko kide guztiak eta, azken batean, guztiak "migrazioarekin" erlazionatuta, aniztasunaren aberastasunaz jabetuta. Proposamena aurrera eramateko, Interneterako konexioa duten 4 gailu mugikor (sakelekoak) erabili behar dira. Tailerraren aurretik, parte hartzen duten taldeei buruzko informazio zehatza eskatuko da.

Entitate arduraduna:

SEI Elkartea.

Nori zuzendua:

14 urtetik aurrera.

Tailerraren iraupena:

2 ordu.

Tailerraren helburuak:

"Migrazioaren" inguruko begirada zabaltzea eta pertsona guztiak "migrazioarekin" erlazionatuta gaudela eta guztiok dinamika sozialetako aktore nagusiak garela erakusten duen errealitatea hurbiltzea, UBUNTU break out joko baten bidez.

Gaztelaniaz eta euskaraz.

© Estudio Omapora, 2024 - 2026

5 *Mundu bat mugimenduan, eskubideen gaia.*

Deskribapena:
Ordubeteko hiru saio.
Mundu bat mugimenduan pilulekin, lehenik eta behin, munduko ordenaren errealitatea eta migrazioak aztertuko ditugu, begirada bakarraren arriskuaz eta gure gizarteetako faxismoaren gorakadaz hausnartuz.
Ondoren, zurrumurruak, fake news-ak eta estereotipoak aztertuko ditugu, migrazioari eragiten diotenak, nola transmititzen diren eta iritzi publikoan (bereziki gazterian) eta migrazio-politiketan zer eragin duten azpimarratuz.
Azkenik, diskurtso horiek desmuntatzeko baliabide zehatzak ezagutuko ditugu, migratzeko eskubidea defendatzen duten, faxismoari aurre egiten dioten eta sormen digitalaren bidez arrazakeriaren aurkako begirada sustatzen duten sare sozialen eta aktibista arrazializatuen adibideak aztertuz.

Entitate arduraduna:
Munduko Medikuak.
Nori zuzendua:
14 urtetik aurrera.
Tailerraren iraupena:
3 ordu.
Tailerraren helburuak:
Etorkinekiko jarrera eta jokabide positiboak sustatzea Espainiako gizartean, kohesio unibertsaleko elementu gisa Giza Eskubideen defentsan.
Gaztelaniaz.

6 *Zibersegurtasuna. Arriskuko portaerak.*

Deskribapena:
Saio batean, Internetekin lotutako zenbait legezkontrakotasunen inguruko kontzeptuak eta erabilera komuneko terminologia argituko ditugu.
Deskribatuko dugu zein diren tresna informatikoak eta komunikazio-tresnak erabiltzean gorde beharreko jardunbide egokiak lanpostuan, hezkuntza-eremuan, etxean eta alor pribatuan.
Gainera, ikasiko dugu zertan dautzan legez kanpoko zenbait ekintza, sare sozialak delituak egiteko asmoz baliatzen direnak, eta zein diren etortzekoak diren zibermehatxuak.
Saioa amaitzeko, gure datuak seguru egoteko eta informazio faltsua detektatzen saiatzeko metodologia ulertuko dugu.



Entitate arduraduna:
Itsanse Ezquerro.
Diseinatzailea eta irakaslea.
Nori zuzendua:
14 urtetik aurrera.
Tailerraren iraupena:
2 ordu.
Tailerraren helburuak:
Zibersegurtasuna beharrezkoa da Interneteko komunikazio-kanaletan dauden arriskuetatik babesteko. Arriskuko portaerak ezagutzea eta xehetasunei erreparatzea informazioa babesteko, eta, urraketaren bat gertatuz gero, jakitea zer egin daitekeen.
Gaztelaniaz eta euskaraz.

© Estudio Omapora, 2024 - 2026

PRESTAKUNTZA-PILULAK
GORROTO-DISKURTSO
eta FAKE NEWSen aurrean

7 Zurrumurruen aurkako estrategia eta gorroto-diskurtsoen prebentzioa.

Deskribapena:
Partaidetza- eta bizipen-metodologien bidez, funtsezko kontzeptuak aurkezten ditugu, hala nola: zurrumurruak, estereotipoak, aurreiritziak eta diskriminazioa. Eguneroko errealitateetan dituen inplikazioak eta ondorioak aztertzen ditugu, bai indibidualki, bai taldeka, gizartean zein egituran, eta horiek kudeatzeko tresnak eman. Horretarako, ikus-entzunezko baliabideak eta bizipen-dinamikak erabiliko ditugu.
Aldi berean, bigarren prestakuntza saio bat eskaintzen dugu, sare sozialek gure iritzi sistemetan duten eragina landu eta ikertzeko. Horretarako, gorroto diskurtsoak atzematen eta sen kritikoa garatzen ikasiko dugu, irakurketa lateralaren bidez.

Entitate arduraduna:
Nafarroako Zurrumurruen Aurkako Sarea.

Nori zuzendua:
14 urtetik aurrera.

Tailerraren iraupena:
2 ordutik 5 ordura bitarte.

Tailerraren helburuak:
Eztabaidarako, hausnarketarako eta ekintzarako guneak sustatzea, bizikidetza eta diskriminaziorik eza bultzatzeko lan-dinamikak sortuz. Zurrumurruen Aurkako Estrategia hedatzea, estrategia hori praktikan aplikatzeko tresnak gaituz eta emanez, argumentariotik abiatuta, gakoekin eta Zurrumurruen Aurkako Agenteen figurarekin.

Gaztelaniaz eta euskaraz.

8 Nola eragiten du desinformazioak gorroto-diskurtsoen sustapenean?

Deskribapena:
Tailer honek desinformazioaren eta gorroto-diskurtsoen sustapenaren arteko lotura aztertzen du. Hedabide eta sare sozialetan dauden benetako adibideak eta manipulazio emozionaleko estrategiak aztertuko ditugu. Dinamika kolektiboetatik eta tresna praktikoetatik abiatuta, desinformazioari eta haren formatuei buruzko ulermen kritikoa sustatzen du tailerrak, askotan benetan mozorrotzen baitira iritzi publikoan eragiteko. Helburua da baliabideak eskaintzea fenomeno horiek ikuspegi kontziente eta kritiko batetik identifikatzeko, zalantzan jartzeko eta saihesteko.

Entitate arduraduna:
RODE Fundazioa.

Nori zuzendua:
14 urtetik aurrera.

Tailerraren iraupena:
2 ordu.

Tailerraren helburuak:
- Desinformazioaren eta gorroto-diskurtsoen arteko lotura ulertzea.
- Azterketa eta egiaztapen-trebetasunak garatzea sare sozialetako eta hedabideetako desinformazioaren aurrean.
- Manipulazio emozionalari eta egia-ondoko inguruneei buruz sentsibilizatzea.
- Zilegizko informazio gisa aurkezten diren desinformazio-formatu eta -estrategiak identifikatzea.
- Pentsamendu kritikoa eta eztabaida sustatzea, prebentziorako tresna gisa.

Gaztelaniaz eta euskaraz.

© Estudio Omapora, 2024 - 2026

9 *Entzun Aterpea (Escucha Refugio).*

Deskribapena:

Escucha [R]efugio podcastaren entzute aktiboaren bidez, gazte errefuxiatuen testigantzetara hurbilduko gara enpatia sustatzeko eta haien errealitateak hobeto ulertzeko.

"Nor da nor?" jokoaren bertsio egokitua erabiliko dugu tresna ludiko gisa, errefuxiatuei eta migratzaileei eragiten dieten estereotipoak eta aurreiritziak identifikatzeko eta horiei buruz hausnartzeko.

Gainera, asiloari eta babeslekuei buruzko oinarrizko kontzeptuei buruzko sarrera bat eskainiko da, harrera-gizarteak gizarteratze
- prozesuetan duen funtsezko zeregina azpimarratuz.

Entitate arduraduna:

CEAR. Errefuxiatuari laguntzeko Espainiako Batzordea Nafarroan.

Nori zuzendua:

14 urtetik aurrera.

Tailerraren iraupena:

2 ordu.

Tailerraren helburuak:

Migranteekiko eta errefuxiatuekiko begirada inklusibo eta enpatikoa sustatzea, estereotipoak desmuntatuz eta gazteen eginkizun aktiboa bultzatuz, harrera gizartearen parte baitira, dibertsitatea errespetatzen duten inguruneak eraikitzeko orduan.

Gaztelaniaz.

© Estudio Omapora, 2024 - 2026